


2006 abuztua  
12.zenbakia

www.haupittuhau.org



----- euskaldunon konpartsaren aldizkaria -----



**ASTE NAGUSIA**

**KONPARTSERO EGUNA**

**HAU PITTU HAUren EGUNA  
HIZKUNTZA ESKUBIDEEN EGUNA  
TXOTX INDAU**



# BI LBOKO ASTE NAGUSIA HURBI LAGO DAGO

Aste Nagusirako atzerako kontaketa hasi da eta Hau Pittu Hau lanean jo ta ke dabil Marijaiari ongi etorri ona emateko. Aurten ere txosna Areatzan egongo da kokatuta eta gure dekorazioa Justizia eta

Euskaldunei buruzkoa izango da. Programazio aldetik, ekitaldi berriak izango ditugu: Igela Txapelketa, Euskal Prozesioa, umeentzako jolasak eta gauean jolasak izango ditugu poteoa eragingarria izateko.



Jai herrikoien alde hartuko dugu kalea

Abuztuaren 19an hasiko da Aste Nagusia eta Hau Pittu Hauko kideek berriro hartuko dute kalea jai herrikoien alde. Areatzan egongo da gure egoitza bederatzi egunotan zehar. Aurten ere Montxok, komikilariak, egin du d e k o r a z i o a «Euskaldunontzat ez dago Justiziarik» lelopean.

Dekorazioan Justizia sistema espainolak eta frantsesak euskaldunon eskubideak zapaltzen zituztela adierazteko asmoz marrazki politak egin dizkigu Montxok.

Programazio aldetik berri asko dugu. Konpartsan gero eta ume gehiago dagoenez, domekan umeentzako jolasak egingo ditugu. Helduentzat, eta txupinaz aparte, egunik indartuena astelehena izango da betiko legez. Konpartsaren bazkaria, Euskara Saria, Konpartsaren Sariak, Play



# SI A GERO ETA

## EUSKAL GUNEKO KONTZERTUAK

Astelehena, 21:  
11:30ean Amaiur

martitzena, 22:  
11:30ean Arima Beltza  
eta D.J. Bull

Eguastena, 23:  
11:30ean Pog Mo Thon  
eta Sorkun

Eguena, 25:  
12:15ean Biok eta  
Kuraia



Pasa den urteko Play Back-a

Back-a, Hau Zorabio Hau jokua, Bertso Triki Kalejira eta erromeria Amaiur taldearekin izango da bete behar izango dugun egitaraua.

Horrez gain, aurten ekitaldi berriak ere badauzkagu. Asterartean eta ostegunean Igela Txapelketa izango dugu gure trebetasuna erakusteko. Tiratzaile txarrek punteria hobetzeko aukera izango dute astean zehar igela txosnan egongo delako erabili nahi

du tenentzat.

Baina, dudarik gabe, Aste Nagusiko ekitaldirik garrantzitsuena Euskal Prozesioa izango da. Prozesio horretan Euskararen aldeko bekatari garen guztiok penitentzia egingo dugu kofradiakidez jantzita eta inauterietarako egin genuen Mintzoa ama birjina modukoa erabiliko dugu.

A s t e a z k e n e a n ,  
arratsaldeko zortziretan  
gure txosnatik abiatuko

gara Alde Zaharrera euskaldunak izateagatik barkamena eskatzeko eta gurekin bi bertsolariak euskal saetak botatzeko ama birjinari.

Penitentzia bukatu ondoren eguneroko poteoari ekingo diogu. Azken urteotan gero eta konpartsakide gutxiagok parte hartzen dute poteoan. Horrexegaitik, eta poteoa indartzeko eta dibertigarriagoa izateko asmoz, gauean ere jolasak izango ditugu.

Oraindik gauza asko zehaztu barik daude, baina Bilboko jaietako lehenengo egunean gure txosnan edukiko duzue egitarau osoa, urtero egiten dugun moduan.

Beraz, Aste Nagusi honetan ere ez dago aspertzeko astirik



HAU HAU

HAU PITTU HAUren EGUNA

**Munduan bada inor harrobi,  
onez diot baina hemen,  
Iruña Bil bo al dean zer da?  
gauz gitxi da nabarmen.  
Jaia egiten da gura danean  
akordatu ta ondoren,  
baina dudatan nago Azkunai  
baimena eskatu deutsien**

## unal Iturrlaga

Maiatzaren 6an, Hau Pittu Hauk, beste hiru euskaldun talderen laguntzarekin (Ttanttaka, Euskarri, eta Suztarri) Jai Euskaldunen Eguna antolatu zuen. Denbora asko generaman pentsatzen zelan egin ekitaldi bat konpartsarako jendea erakartzeko. Eta milaka gauza pentsatu eta gero, bertso bazkari bat izango zela aproposena erabaki genuen.

*Bertso  
bazkariak  
arrakasta  
handia  
eduki zuen*

Astean zehar beldur izan ginen Errondabideko jantokia eta jarritako itxaropenak ez betetzeaz, baina bertso bazkariak arrakasta handia eduki zuen eta jesarleku guztiak bete genituen. Bertsolariak: Unai Iturriaga eta Amets Arzallus.

Goizeko 12etan Euskal Herrian Euskarazek



# BERTSOAK ETA EUSKALDU

antolatutako kontzentrazio batera joateko geratu ginen, baina bertan behera geratu zen eta poteoari

ekin genion.

Eguerdiko ordu batean, trikitrilari eta pandero-jole batekin Bilboko Zazpi



Euskaldun giro ona sortu genuen



**Baimenik bazen edota ez zen,  
zeozer esan zidaten  
badikizu baimen kontuak  
gaur nol a diren izaten,  
ta azkunari eskatu behar  
omen zaio paper baten,  
askoz hobe da ez eskatzea  
ez duel ako ematen**

**amets arzal I uz**

# GIRO ONA JAI NEN ALDE

Kaleak berotu genituen  
euskaldun giro onena  
sortzen.

Hirurak aldera  
bazkaltzera joan ginen.  
Egia esanda bazkaria oso

ziren.

Lehenengo mailako  
bertsolariak zirela  
nabaritzen zen. Ordu bete  
baino gehiago eman zuten  
bertsoak botatzen, edozein

gai jorratuz: Bilbo,  
Athletic, Pako eta  
Marisol....Hau Pittu Hau,  
Azkuna....

Arratsaldeko 18:00etan  
inguru bukatu zen saioa.  
Eta Pakoren txistuari  
esker kalejirari berriro  
ekin genion. Oso giro  
polita montatu genuen  
Somematik, jende  
mordoa elkartu zen  
gurekin dantza egiteko.  
Hortik aurrera, gaua  
betiko moduan bukatu  
genuen, Somera gora,  
Somera behera.... Bilbi...  
indarrak agortu arte.

*Unai eta  
Amets  
lehenengo  
bertsolariak  
direla  
nabaritzen  
zen*

ondo egon zen: patatak  
Errioxar erara eta oilaskoa.  
Eta inor ez zen gose  
geratu. Postrekin batera  
lehenengo bertsoak hasi



Gaua betiko moduan bukatu genuen



HAU HAU

KONPARTSERO EGUNA-KONPARTSERO

# KONPARTSERO KONPARTSERO

Bero itzela bai konpartsero egunean izan genuena, Uztailak 15, uda erdian normala da bero izatea baina aste horietan Bilboko termometroetan ikusitakoa ez zen bat ere ohikoa.

Hala ere gu oso goiz joan ginenez leku onean kokatu ginen, itzalpean.

Kanpi eta Eneko, bai aurten gure Txomin ez da egon eskontza zuen eta, hasi ziren pintxo goxoak prestatzen, eta urtero legez ez genuen saria irabazi, jada hasi beharko dugu pentsatzen edo oso sukaldari txarrak garela edo epaimahaietan tongoren bat dagoela.

Izan ere gure mutikoak nahiko gogor saiatu ziren Deian eta guzti agertu baitziren hurrengo egunean.

Bikote honek pintxoak prestatzen zituen bitartean beste batzuk mahaiak eta aulkiak ipintzen, paella



Kanpik pintxoak egin ostean paella prestatzen lagundu zuen



# SERO EGUNERO ERO ETA SERO EGUNEAN BERO



Osagaiak mozten eta entsaladak prestatzen

prestatzen, osagaiak mozten eta abar aritu ziren.

Eta nola ez, komando txiki bat joan zen Somera aldera dana bere lekuan z e g o e n e n t z konprobatzera.

Astrabuk edaria erosi zuen urtero legez baina eta hau harrigarria, ardoa ez zuen erosi!!, berak Arabar Errioxan pisu bat izan arren!!

Beraz bazkarian sagardoa, garagardoa eta kalimotxo edan behar izan genuen.

Postrea heltzean

xurrumuruak hasi ziren, ez dago postrerik, bai badago eta abar, eta bai, bazegoen fruita almibarrean goxo goxo.

Kopak heldu ziren gero eta hemen bai hornidura galanta, "Kalezaharra" bataiatu genuen orujoa, whisky eta nola ez patxarana.

Zozketa egin ondoren batzuei egokitu zitzairen mahaia biltzea eta harrikoa egitea eta besteok libre geundenez kafetxo bat hartzera joan ginen

Askaora.

Eta kafetxotik buelta erromeria, bai, asmatu duzue, Amaur zen jotzen zuen taldea, eta han egon ginen dantzaka eta algaraka gure lekua mantentzen, hau da, eszenatokitik ahalik eta hurbilen, zer uste zuten bada Zorrotzakoek?heldu eta gure lekua kendu, ez ba!!

Erromeria bukatu ostean Somerara abiatu ginen konpartsa guztiak fanfarriaren musikaren laguntzaz



HAU HAU

KONPARTSERO EGUNA



Itzalpean kokatu ginen berotik ihes egiteko

poteoari ekiteko.




Poteoa nahiko aurreratuta zegoenez, hots, Morgan, Pirrikik eta biok "21" ikusi genuen, futbolaz deus ere ez dakitenez, Iñigo

Larrainzar, emakumez jantzita eta San Mamesen egiten omen zuen bezala korrika egin zuen tabernatik kalera.

Hortik aurrera ez dakit zer

gertatu zen neu etxera joan bainintzen baina Hau Pittu Hau ezagututa ziurrenik gehienek Santutxun bukatu zuten gaua, Aste Nagusirako entrenamendu ederra.

TXUPINAN... **BILBOKO URA!!**

**Bilboko konpartsak**





## TXOTX INDAU 2006

Gizon emakumeak ohiturazko gizakiak omen gara. Gauza bera birritan edo hirutan eginez gero jada ohitura edo usadio bihurtu egiten da. Bada konpartsak badu beste ohitura bat, urtero Txotx Indau-ra joatea. Azter dezagun bada gure usadio berria. Lehenik eta behin Txotx Indau konpartsaren bi sustrai nagusiak uztartzen ditu, jaia eta euskara, beraz ortodoxiarik zorrotzena betetzen du, zalantzarik gabe. Janaria egon badago, baina aitzakia baino ez da benetako helburuari bide emateko, parranda euskaraz botatzea. Sagardo kupelari astindu eder batzuk eman eta gero, herri kiroletan hasten gara gaueko ordu txikietan. Hori bai euskaltegiko bertsioan, hau da txingak beharrean paper paketeak eskuan hartuta. Hau Pittu Haukoak

trebeak omen gara arlo horretan behin baino gehiagotan irabazi egin baitugu. Dena den, Aste Nagusi guztietan zer nolako porrotak jasotzen ditugun ikusita, ziurrenik Indautxuko ikasleen maila oso baxua da.

Sagardoa bukatu arren jaia ez da amaitzen, Bilboko edozein taberna, txoko edo kafe antzoki da egokia gure doitasunak erakusteko, hortik ateratzen dira gure beteranoa, gure krak eta gure harrobiko jokalaria. Gaueko jokia menperatzen dugu eta doping-ik gabe. Gaua ere erabili ohi dugu fitxajeren bat egiten ahalegintzeko, eta ez diru truk, eeehhhh. Eskerrak gure partiduak ez dituztela telebistatik botatzen.

Holakoak gara, ohiturazkoak, beraz, konpartsaren egutegian hasi markatzen beste egun bat, urteroko Txotx Indaukoa.

## IBILALDIAN AZKEN HIRUGARRENAK IZAN GINEN

Elorriko Ibilaldian Euskal Herrien arteko III. Xiba Txapelketaren lehenengo sailkapena burutu zen eta antolatzaileek Bilboko Konpartsei gonbidapena luzatu zieten parte hartzeko.

Gonbidapenaren ondorioz hara abiatu zen Hau Pittu Hau eta Satorrakoekin batera talde bat osatu genuen sei neskek eta sei mutilek. Hau Pittu Hau-ren aldetik: Oskar, Teresa, Fuen, Peru eta Monika. Gure abilezia eta gaitasunak frogatu behar izan genituen, joko oso desberdinetan ari baitginen, guztiak ere euskal ohituretatik hartutakoak: harria, txingak, zakua, lastoa, sokatira, lokotxak, dantza, ingudea, trontza, toka, xiba, galotxa, hankapaloak eta mus-a.

Berandu heldu ginen gozaltzen egon ginelako Elorrioko taberna batean. Ailegatzerakoan gure taldeko zapiak hartu genituen eta konpartseroak garenez txosnara joan ginen besteek beroketak egiten zituzten bitartean; baina, hala eta guztiz ere, ez ginen azkenak geratu, azken hirugarrenak baizik.

Meritu handia gurea, kontutan hartzen badugu aurrean zeuden taldeak sasi-profesionalak ematen zutela.



# ZAHARRAK BERRI EUSKALDUNONTZAT

Demagun Asier, Gernika-Lumoko herritar euskaldun bat dela. Demagun aipatu herritarra istripu baten lekuko izanagatik justizia administrazioak deklaratzera deitzen duela bere herriko epaile baten aurrean eta epaile hura euskalduna ez izateagatik bi aukera geratzen zaizkiola: bata erdaraz deklaratzera, bigarrena ordea, itzultzaile baten bitartekaritzaz baliatuta deklaratzera. Jo dezagun, Asierrek ez duela bere herrian bertan atzerritar baten modura hartua izan nahi eta bere hizkuntza eskubideak koherentzi osoz defendatu nahian dabilela, hortaz euskaraz egin ahal izan arte deklaratzeari uko egiten diola. Eta azkenik, demagun epaile erdaldunak Asierren jarrera, justizia oztopatzeko ekintza desobediente baten modura ulertuz, berau epaitzeko erabakia hartzen duela. Egin dezagun, Asier ez dela asmatutako herritarra, baizik eta maiatza aldean, Bizkaiko Audentzia Probintzian epaile erdaltzale baten eskutik sei hilabeteko kartzela zigorra jaso duen gernikar euskaltzalea. Irainak, kolpeak,



Asierren alde Gernikan egindako manifestazioa

atxiloketak, isunak, administrazio publikoko langileekin tirabirak euskaraz bizitzeko hautua egin duten herritarren eguneroko ogia da. Baina oraingo honetan, justizia sistema erdaltzaleak gure eskubideak lotzen dituen soka estutzeko erabakia hartu eta euskara hutsez bizi nahi izateagatik, kartzela zigorrak banatzeari ekin dio.

Eta honen aurrean batek baino gehiago pentsatuko du: "Ze aukera geratzen zaigu herritarroi, protestarako bide guztiak

jorratu ostean egoera bidegabea bere horretan dirauela ikusten dugun honetan?". Jarrai dezagun, baita justizia administrazioan ere, guri berez dagozkigun hizkuntza eskubideak determinazio osoz praktikara eramaten. Bitartean, bultza dezagun ere Euskal Herriak bere hizkuntza politika propioa erabaki eta indarrean jartzeko eskubidearen alde, azken finean hor baitago nozitutako hizkuntza gatazkaren konponbidearen muina.



# BARRAZKI LOA HI ZKUNTZA ESKUBI DEEN ALDE SANTURTZI N API RI LAREN 2AN

**H i z k u n t z a eskubideen defentsa guztion esku dago! lelopean III.Hizkuntza Eskubideen Eguna ospatu zen Euskal Herrian Euskarazek antolatuta eta hara hurbildu ginen konpartsakide batzuk.**



Bazkal ostean une polit bat bizi genuen

Eguna goizean goiz hasi zen, Bilbon bildu ginen berbalagun batzuekin batera eta Santurtzirantz abiatu ginen. Hara heldu ginenerako kai ondoan "euskaraz bizi" izenpean antolatutako gunea jendez beterik zegoen eta inguruaren araketari ekin genion, hara hor non EHE-ko kide batzuk oso lanpetuta zebiltzan dena prestatzen, umeak taillerretan eta jolasetan parte hartzen zein gaztelu puzgarrietan aritzen ziren bitartean. Dena den, Ezkerraldeko harri zulatzaileek lortu zuten gure arreta osoa, harrigarria izan zen itzelezko harri koskorak gurina izango balitz bezala

zultatzen ikustea.

Handik gutxira, ordu bata jota, Udaletxeko plazatik abiatuta manifestazioa hasi zen eta Santurtzitik ibilaldira bat egin ostean kaian ekitaldi berezi bat izan zen, non ipuinkontalari batek ume batzuei euskararen Historia kontatzen zien bitartean ezkerraldeko eragileen parte hartzea eta EHEren irakurketa tartekatu zen, atzerritar batzuek beraiek euskararekiko bizi izandako eskarmentua kontatu zuten edo "kaltetuak", hau da, euskaraz ikasteko zein euskara ezagutzeko eskubidea ukatu digutenoi, igo ginen eszenatokira gure eskubideak aldarrikatzeko.

Ordu biak aldera bazkaria hasi zen, oso gustora sartu ginen 400 pertsona inguru, kai ondoko karpan, albokariak eta panderojoleak animatutako bazkari eder eta polit batez disfrutatzen. Bazkalostean, une polit bat, umeak osatutako abesbatza bat agertu zenean, bizi genuen, nahiz eta ordurako benetan kezkatzen gintuena patxarana zen.

Laster gutxira ENE BADA! taldearen kontzertu ederra! Konpartsakide batek Ene badakoek gure konpartsako kamisetak jantzita kontzertua ematea lortu zuen, guk bestetik, beraiek eskainitako keinua eskertzeko dantza pilo egin genuen.



# KONPARTSEN EGI TARAUA

## Larunbata, 19

17:00 Bilboko Konpartsak.  
Txupi Kalejira San Anton  
zubitik.

19:00 Bilboko Konpartsak.  
Txosnen irekiera  
Marijaiarekin

## Igandea, 20

16:00 Pa...Ya. Briska, Tute  
eta Igela Txapelketa

17:30 Altxaporru. Toka  
Txapelketa

20:00 Algara. Nafar  
Eguna. Urbeltzen Dantza  
Ganbara

20:20 Triangune. Kontzertua:  
Aljazzira

## Astelehena, 21

12:00 Hontzak. Heriotzik  
gabeko arrantza lehiaketa

19:00 Triangune. Kontzertua:  
Las Furias eta Kepunkepan

23:00 Arriaga Atsekaldea.  
Kontzertua: Lor eta Izate

23:00 Tintigorri. Kontzertua:  
Resaka

24:00 Askapeña-Pa...Ya.  
Erromeria Arizgoiti  
taldearekin.

## Asteartea, 22

11:00 Pa...Ya. Ume  
Jolasak

13:00 Hontzak-Tintigorri.

Itsasdesafioa.

13:30 Altxaporru.  
Umeentzako Herri  
Kirolak

17:00 Altxaporru. Toka  
Txapelketa

18:30 Pa...Ya. Takoi ta  
Txano Pailasoak

18:30 Pa...Ya. Ume Herri  
Kirolak

19:00 Triangune.  
Kontzertua: Radikal Bus  
eta The Longfathers

19:00 Txori Barrote.  
Bilboko Errepresaliatuen  
Senidei Omenaldia.

20:00 Pa...Ya Izu Etxea

21:00 Moskotarrak. 50m  
Vallas Txapelketa

23:00 Arriaga Atsekaldea.  
Kontzertua: Fritanga

## Asteazkena, 23

13:30 Altxaporru.  
Euskal Soinu Tresnen  
Erakusketa

17:00 Triangune.  
Makilaia eta Globofexia

18:00 Tintigorri. Balbi  
Magoa

18:30 Altxaporru.  
Ingude Txapelketa

21:00 Moskotarrak.  
"Julen Guerrero beti

gurekin" Txapelketa  
Osteguna, 24

12:00 Mamiki. Munduko  
Emakumeen Tailerrak

13:30 Altxaporru.  
Umeentzako Herri Kirolak

14:00 Kaskagorri. Bertso  
Bazkaria

18:00 Mamiki. "SER O NO  
SER" Cristina Castilloren  
monologoa.

18:00 Altxaporru. Lasto  
Jaurtiketa

21:00 Kaskagorri.  
Kaskatxo Lasterketa

23:00 Mamiki. Hip hop  
BKC taldea.

## Ostirala, 25

14:30 Txori Barrote.  
Bizkaiko Errepresaliatuen  
Bazkaria

20:30 Kaskagorri.  
Malabareak

## Larunbata, 26

21:00 Algara. Mozorro  
Afaria

01:00 Kaskagorri. Kuña  
Igandea, 27

17:00 Kaskagorri-  
Altxaporru. Fanfarre  
poteo.

20:00 Pa...Ya. Parrillada

23:00 Pa...Ya. Antzerkia

BILBON BA DAQO  
EUSKARAZ BIZITZERIK.....

BA DAQO THAUTERIAN  
EUSKARAZ PARTE HARTZERIK

BA DAQO SANTI TOMASAK  
EUSKARAZ EZAGUTZERIK

BA DAQO ASTE NAGUSIA  
EUSKARAZ GOZATZERIK

www.haupittuhau.org

HAU PITTU HAU REKIN

IZENA EMAN HAU PITTU HAU-n,  
haupittuhau@haupittuhau.org ra mezu bat bidaliz.

## DEIALDIAK

Urriaren 1ean:

\* Kilometroak (Oartzunen)

Urriaren 15an:

\*Nafarroa Oinez (Beran)

